

## TREBAKUNTZA 2015/12: PUNTUAZIOA III (PUNTU ETA KOMA)

**OHARRA:** asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

### OHIKO AKATSAK

1. \* *Udaletxeko langilerik formatuena da, ikastaro guztietan ematen du izena.*
2. \* *Alkateak esan du berandu iritsiko dela, arkitektoa, aldiz, ordurako etorriko da.*
3. \* *Hauteskundeetan ez zutela emaitza onik lortu aitortu zuen. Hau da, galdu egin zutela.*
4. \* *Bertan izan ziren Leire Amilibar Kultura sailburua, Jon Ander Irazu kultur zinegotzia, Ainhoa Elizgarai Gipuzkoako Aldundiko teknikaria, eta Juan Urtubi udal idazkaria.*
5. \* *Esan zuten erabakia atzeratzea izango zela gomendagarriena, egokiena, azken batean.*

### ZUZENKETAK ETA AZALPENA

#### PUNTU ETA KOMA (;)

Puntuazio-marketan, beharbada, puntu eta koma dugu “zokoratuena”. Hala ere, puntuazio eraginkorrak ezinbestekoa du, beste maila bat (puntuaren eta komaren artekoa) eskaintzen baitigu perpausen joskerara antolatzeko.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99

- **Ezaugarri orokorrak**

- Puntuak baino eten txikiagoa adierazten du puntu eta komak, baina komak baino handiagoa. Puntu eta komaz markaturiko esaldien artean lotura semantiko handiagoa dago, puntuz bereizirikoen artean baino. Beraz, egoki erabiliz gero, aberastu egiten du testuaren egitura eta informazioa, ñabardurak adierazten baititu.

- Puntu eta komaren ondotik, zuriunea uzten da beti.

- **Noiz erabiltzen den**

- Esaldien artean esanahi lotura estua dagoela adierazten du puntu eta komak. Horrelakoetan, puntu eta koma erabiltzen da esaldiak bereizteko, eta ez puntua:

*Gasteizko gizonik aberatsena zen; lurrak, etxeak eta erroak zituen.*

Lotura logikoa esplizitatu nahi izanez gero —kausa, ondorioa, aurkaritza...—, lokailuak eta bestelako diskurtso antolatzaileak erabili beharko ditugu:

*Aimarrek Peñagarikano izango du lagun; Asierrek, berriz, Ruben Beloki.*

*Batez ere, eleberriak eta ipuinak irakurtzen ditut; zuk, aldiz, sekula ez duzu nobelarik irakurri.*

- Enumerazioetan, normalean komaz bereizten diren elementuak puntu eta komaz bereizten dira, **baldin eta barrenean komak badituzte:**

*Bertan izan ziren Elizabeth Schuhmacher, Errauste Planten Aldeko Elkarteko burua; Andrea Floret, Ingurumen Saileko biologoa; Jesus Etxebarri, Gipuzkoako Aldundiko teknikaria; eta Asier Garmendia, Natura Babesteko Planaren egilea.*

- Laburpen moduko batzuetan ere puntu eta koma baliatzen da. Argibide gisakoak izan ohi dira, esaldi bukaeran idatziak.

**U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a**

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99

*Bizipen horiek sentimendu bat sortzen dute, eta sentimendu hori hitz bilakatzen da; kantu, azken finean.*

Beraz:

1. Udaletxeko langilerik formatuena da; ikastaro guztietan ematen du izena.
2. Alkateak esan du berandu iritsiko dela; arkitektoa, aldiz, ordurako etorriko da.
3. Hauteskundeetan ez zutela emaitza onik lortu aitortu zuen; hau da, galdu egin zutela.
4. Bertan izan ziren Leire Amilibar, Kultura sailburua; Jon Ander Irazu, kultur zinegotzia; Ainhoa Elizgarai, Gipuzkoako Aldundiko teknikaria; eta Juan Urtubi, udal idazkaria.
5. Esan zuten erabakia atzeratzea izango zela gomendagarriena; egokiena, azken batean.

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: [iratxe.udalak@uema.eus](mailto:iratxe.udalak@uema.eus) (Iratxe)

Hurrengora arte!

**U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a**

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99